

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2012ko uztailaren 26a. IX. urtea. 2.391. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Tolosako estoldak izango dira Manu Urangaren eskulturaren oinarriak

Eskulturastea lehiaketako lehen saria irabazi du Zumaiako Manu Urangak; 'Estolda arteko lerroak' lanak bi fase izango ditu: gida bat osatuko du eta eskultura ere egingo du

Irailaren 10ean hasi eta 15ean bukatuko da Tolosako Eskulturaren eta Esku Hartze Artistikoaren I. Sinposioa; Mera izan da lehian bigarren, eta Aritzkoa hirugarren **03**



Eskulturasteako bost saridunetako lau: Manu Uranga, Elena Aitzkoa, Miren Arenzana eta Jon Otamendi. HITZA

### Tolosa eta Valladolid gertuago, euskal dantzei esker

Udaberri dantza taldeko kideak joango dira, asteburuan, Gaztela eta Leonera **02**

### Euskararen osasuna ona dela diote leitzar eta aresoarrek

Oraindik ere hizkuntzaren egoera hobetu behar da, nahiz eta aurrera pausoak eman diren **07**

### Saharako haur gehiago hartu nahi ditu Maiatzak 20ek

Ibarrako Udalak utzitako etxe batean sei ume daude; kopurua handitu nahi dute, nahiz eta egokiena «ez etorri behar izatea izango zen» **06**

### Villabonako Udala pozik, tupper kanpainarekin

Jende askok erabili ditu tupper motako ontziak herriko harategi eta arrandegietan; erabiltzaileak zoriondu ditu **05**

**SANTIO JAI AK 2012**

murgildu **SANTIO JAI ETAN**  
**euskaraz!**

AMASA-VILLABONA  Villabonako Udala

# Euskal Herri osoko dantzak eskainiko ditu Valladoliden, Udaberri dantza taldeak

Elkartrukea egingo du dantza talde tolosarrak, eta datorren urrian etorriko dira gaztelarrak eskualdera

**Itzea Urkizu** Tolosa

Bizkaia, Gipuzkoa nahiz Zuberoako doinu, pauso eta jantziak oiholtza gainean jarriko ditu Tolosako Udaberri dantza taldeak asteburu honetan, La Seca-ko (Valladolid, Espainia) dantzen topaketan. Dantza talde tolosarrak elkartrukea antolatu du Grupo de danzas Villa de La Seca-rekin, eta Gaztela eta Leongo paraje nahiz kultura ezagutzeko aukera izango dute, bihartik igandera bitarte.

Bihar arratsaldean Tolosatik abiatuko dira, eta gauerdian iritsiko dira hara. Larunbat iluntzean izango da emanaldia, eta bertako dantza taldearekin batera ariko dira.

Udaberrik bi zatitan banatuko du emanaldia, eta Euskal Herriko hainbat txokotako pausoak ikusgai izango dira La Seca-ko plazan. Hasteko, Gipuzkoako dantzei eskainiko diete lehen zatia: Agurra, Ormatxulo eta Punta-motz soinu zaharrak, Ezpata dantza, Uztai txiki dantza, Belauntxigo, eta azkenik, Fandangoa eta Arin-arina.

Jarraian, bertako dantzariak Gaztela eta Leongo dantzak eskainiko dituzte, Udaberriko kideek dantza bizkaitar eta zuberotarrekin emanaldia amaitzeko. Modu honetara, beraz, Ikurrin dantzarekin hasi, eta Zortzinangoa, Banangoa nahiz Txakarrankua etorriko dira segidan ikusleengozamenerako.

Emanaldiko unerik ikusgarrienetarikoa Lekeitioko Kakarrankarekin iritsiko da, eta sardineren dantza eskainiko dute gero. Azkenik, Zuberoara salto egin, eta bertako maskaradako zenbait



Kaxarranka emanaldiko unerik ikusgarrienetakoa izango da. HITZA

zati eskainiko dituzte dantzari tolosarrek.

Elkartrukearen bigarren zatia datorren urriaren 26tik 28ra izango da, orduan etorriko baitira dantzari gaztelarrak Tolosara.

## Gaztetzxoek ere dantzan

Pasa den maiatzean abiarazi zuten, Udaberri dantza taldeko kideek, datorren ikasturteko dantza ikastaroen antolakuntza, ikastetxe eta eraikin publikoetara esku-orriak eramanez.

Azken urteotan bezala, [www.udaberri.com](http://www.udaberri.com) webgunetik izena emateko aukera eskaini du

taldeak. Hala ere, datorren irailaren 6an eta 7an, Antonio Maria Labaien kultur etxean izen-emate mahaia jarriko dute, dantza taldeko ikastaroetan izena eman nahi dutenentzat.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## Arramele eta Amarotz zine areto bilakatuko dira abuztuaren 7tik 9ra bitarte

‘Intocable’, ‘Vengadores’ eta ‘Gartxot’ filmak ikusgai izango dira, kalean jarriko dituzten pantaila erraldoietan

**I. Urkizu** Tolosa

Urteroko moduan, aurten ere zinea kalean izango da abuztuko lehen egunetan, Tolosako Udalak antolatuta; Amarotz eta Arramele auzoak izango dira aurten, zine areto.

Gutzira hiru film ikusteko aukera izango da, abuztuaren 7tik 9ra bitarte, eta haur nahiz helduek gozatzeko aukera izango dute.

Horrela beraz, abuztuaren 7an, asteartearekin, helduei zuzenduriko film luzea eskainiko dute, 22:00etatik aurrera, Amarotz auzoan: *Intocable*. Benetan gertatutako istorio bat oinarri hartuta idatzitako pelikula hau komedia bat da, eta istripu baten ondorioz gurgildun aulkian geratu den aristokrata baten, eta Parisiko auzo behartsuaren bizi den bere laguntzailearen arteko harremana izango da hari nagusia.

Abuztuaren 8an, 22:00etan, Ironman, Hulk, Thor eta Captain America bezalako super-heroiek osatutako taldea mundua salbatzen saiatuko da *Los Vengadores* filmean. Arramelen ikusgai izango da.

Azkenik, abuztuaren 9an, 22:00etan, *Gartxot, konkista aitizneko konkista* filmak, Nafarroako bardoa zenaren istorioa kontatuko die bertaratuei, Amarotzen.

## → Laburrak

### Tuteran izango dira Tolosa Kantarikoak, irailean

**KULTURA** › Tolosako Kantari Tuteran izango da, datorren irailaren 9an ospatuko duten euskal kantu taldeen bilkuran. Autobusak antolatu dituzte hara joateko, eta txartelak 20 euroren truke salgai daude Xirimiri kafetegian. 08:00etan abiatuko da autobusa, eta norberak bere bazkaria eraman beharko du. Antolatzaileak gosariak nahiz bazkaltzeko lekua aurkitzeaz arduratuko dira. Bestalde, larunbat honetako kantu jirarako azken entsegua gaur izango da, 20:00etan, kultur etxean.

### Rafa Ruedaren emanaldi akustikoa, gaur, Orbelan

**MUSIKA** › Hilabeteroko azken ostegunero bezala, Orbelako Gauak egitasmoaren saio berri bat izango da gaur, Rafa Rueda bakarlariekin. Musikari mungiarak, formatu akustikoa eskainiko du emanaldia, eta Jesus Aranburu piano jotzailea lagun izango dute bere gitarrak eta ahotsak, *Enaren geometria* diskoko doinuak eskaintzerakoan. 22:30ean hasiko da kontzertua, Orbela tabernan.

### Asis Sarearen otoitzaldia, gaur, Klarisen komentuan

**ERLUIJOA** › Asis Sarearen otoitzaldi bilkura izango da gaur, 19:30ean, Tolosako Klarisen komentuan. «Norberaren bilatze-bidean nahiz eguneroko fedearen bizipenetan» laguntza espiritualua eskaintzea da sarearen helburua, «frantziskotarren intuizioak, bide zabala eta plurala jorratzu».

## Irudia › Bidegoian



## KANPALDIA, LUDOTEKA AMAITZEKO

Udako jarduerari amaiera emateko, kanpaldia egin zuten Bidanian, ludotekako gaztetxoek. Zortzi begiralaren laguntza eta eguraldi ona izan zu-

ten, eta bertan afaldu eta gero, frontoian jokoak antolatu zituzten begiraleek, haurrentzat. Parkean bertan lo egin zuten, kanpin dendentan. HITZA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Manu Uranga: «Tolosak eskultura publikoa berritzeko asmoa zuela sumatzen nuen»

‘Estolda arteko lerroak’ obrarekin Eskulturastea lehiaketako lehen saria jaso du artista zumaiaarrak

**Imanol Garcia Landa**

Tolosako Eskulturastea lehiaketaren lehen saria jaso du Manu Urangak (Zumaia, 1980) *Estolda arteko lerroak* izeneko lanarengatik. Bilbon du estudioa Urangak, eta, batez ere, eskulturak eta bideoak lantzen ditu. Lehiaketara aurkeztu duen lanak bi fase izango ditu. Alde batetik, herriko zenbait estoldari buruzko gida osatuko duen argitalpena, eta, bestetik, estoldak erabiliz osatuko duen eskultura. Urangak azaldu duenez, «oso tentagarria da espazio publikoetan esku hartze publikoak egitea, eta Tolosak eskultura publikoari buelta bat emateko gogoia zuela eta egungo beharrei erantzunez berritzeko asmoa zuela sumatzen nuen».

Tolosako Alde Zaharreko «kontzeptualki eta estetikoki interesgarriena» lirakeen estoldak aukeratu ditu Urangak: «Estolda horiek heraldika edo ezkutu antzeko batzuk dituzte, eta nolabait herriko memoria historikoa hurbiltzen dute, udalarekin edo herriko familiekin lotura dutelako». Ikerketa bat egingo du estolda horien inguruan eta idazle bati gonbita egingo dio herriko familiei buruzko istorioak osatzeko. Hortik argitalpen bat sortuko da, gida moduko bat, herriari bisita egiteko estoldak kontuan izanik.

Eskulturari dagokionez, estolden azpiko urbanizazio mapak hartuko ditu Urangak obrari itxura ematen laguntzeko: «Pieza bat izango da, baina oraindik ez dakit nolako forma izango duen». Estoldak hartuko ditu, ez daki oraindik kopuru zehatza, eta horiek manipulatu egingo ditu: «Be-roaren eraginez urtu egingo ditut. Estoldan ageri diren sinboloak hein batean urtzen joango dira, eta estoldak beraiek ere moldatzen joango dira. Azken finean, asmoa da altzari urbanoaz jabetu beste eginikizun eta nahi batzuk bilatzeko, eta azkenean ‘sinbolo’ bilakatu dadin».

Lehiaketako lehen saria lortzeko «poztu» duela dio Urangak: «Niretzat pertsonalki proiektu interesgarri bat aurrera eramateko aukera da». Eskultura publikoa «erantzukizun» bat dela dio, «beste modu batera mugituko den obrekin alderatuz». Erronka bat ere badela esan du: «Norberaren obra beste ikuspuntu batetik be-



Manu Uranga, eta eskuinean, *Planta* bere azken erakusketaren *Cobijo* izeneko bideoaren fotograma bat. HITZA



giratzera behartzen zaitu eta hori oso interesgarria da».

Eskulturaren kokapena begiratzen ari da Uranga: «Kokapenak asko baldintzatuko du eskultura izango duen gorpuzkera. Oraindik ez dakit espazio publiko kanpoan edo barruan izango den. Aipatzekoa da eskultura hitza erabiltzen dugunean bustu batean pentsatzen dugula orokorrean, baina ez du zertan horrela izan behar».

Kokapena ere udalarekin adostu behar dela zehaztu du Urangak: «Interesgarria da erakundearekin egiten den negoziaketa, eta nik uste dut oso irekiak daudela proposamenetara eta zentzuzkoak diren artistaren beharretara egokitzea. Aukeraketa zentzuduna izan behar du jartzen denarekiko».

Urangaren azken erakusketa, *Planta* izeneko, Bilboko Arkitecto Elkargoa egon da ikusgai. Bestalde, gogora ekarri du aurreko urtean lau artistek MLDJ plataforma osatu zutela, «egungo beharrei eta artista gisa ditugun beharrei erantzuteko. Alde batetik, gure eremu gertuena den Bilbori zerbait emateko eta, bestetik, gure lan propioa aurrera ateratzeko». Lokal bat alokatu zuten eta hainbat jarduera eman zituzten aurrera, «beti ere erantzukizun publiko batekin. Zailtasun handiak ditugu artistok gure lanak aurrera ateratzeko eta agertzeko, bitartekari asko daudelako».

## «Arte berriari ireki»

Eskulturastea, Eskulturaren eta Esku Hartze Artistikoaren I. Sinposioa, irailaren 10etik 15era bitartean izango da. Ekinbide etxak bultzatu du, udalaren laguntzarekin, eta mahai inguruak, hitzaldiak eta jardunaldi pedago-



Eskulturastearen lehiaketako epaimahaia Ibai Iriarte alkatearekin. HITZA

## ↓ Saridunak

Eskulturastearen lehiaketan bost sari banatu dituzte.

■ **1. saria.** Manu Uranga, *Estolda arteko lerroak*.

■ **2. saria.** Daniel Mera, *Ura*.

■ **3. saria.** Elena Aitzkoa, *Harri-kumeak*.

■ **Accesit.** Jon Otamendi, *RC Idiaquez*.

■ **Accesit.** Miren Arenzana, *Love*.

gikoa izango dira. Bestalde, lehiaketako lehen sarituek beraien obra aste horretan zehar gauzatuko dute eta irailaren 15ean egingo da sari banaketa. Manu Urangak jaso du lehen saria, Daniel Merak bigarrena *Ura* lanarekin eta Elena Aitzkoak hirugarrena *Harri-*

*kumeak* obrarekin. Epaimahaia bi accesit ematea erabaki du, aurkeztu diren obren kalitatea ikusita; Jon Otamendik *RC Idiaquez* lanarekin eta Miren Arenzana *Love* obrarekin jaso dituzte accesitak.

Guztira 44 lan aurkeztu dira lehiaketara. Epaimahaiaren buru Nestor Basterretxea aritu da eta kultura arloko beste hainbat pertsona osatu dute: Nisa Goiburuk, Charo Otegui, Asier Mendizabal, Jose Ramon Anda, Peio Agirre, Inaki Epelde eta Pello Irazu. Erabakia hartu zen egunean, Ekinbide Etxetik sinposioa bultzatzen aritu diren kideak eta Ibai Iriarte alkatea ere tarteka izan ziren bileran. Nisa Goiburuk azaldu duenez, saritutako bost lanak «oso onak» iruditu zaizkie epaimahaiari. «Oso zaila izan zen

hiru aukeratzea, bostak kalitate maila berdinean sartzen baitziren. Horregatik epaimahaia erabaki zuen bi accesit ematea». Bigarren eta hirugarren saria jaso dutenak esku hartze artistikoa dira, beraz, iraupen gutxiakoak izango dira eta denbora tarte batez egongo dira ikusgai.

Epaimahaian eztabaida izan da lehiaketarako nolako arte mota aukeratu behar zen erabakitzerakoan, baina azkenean artejoera berriei atek ireki zaizkie. «Artistak gazteei leku bat eman nahi zitzaien bere obrak erakusteko, arte berriari irekitzea zen asmoa», azaldu du Goiburuk. «Orain arte dagoeneko klasiko bihurtu den artea dago Tolosan: Nestor Basterretxea, Oteiza... Orain artea beste pauso bat ematen ari da».

**Irudia** > Alegia



## SARIA BALIARRAINERA

Intxurre KKE futbol taldearen aurtengo zozketako saria Eneko Garmendiarentzat izan da. 1.564 zenbakia izan da saritua, eta Santos Irazustaberrena eta Patxi Renobales zuzendaritzako kideek eman zioten saria. Bi lagunentzako Donostiako Juanito Kojua jatetxean afaria; Donostiako Londres Hotelean bi lagunentzako luxuzko logelari lo egiteko aukera eta gosaria; La Perla talasoterapiari bi pertsonentzako zirkuia eta bazkaria; eta 300 euro dirutan jaso ditu, baliarraindarrak. HITZA

## Garmendia ariko da Lokotx Biltze Txapelketan

Eneko Garmendia baliarraindarra izango da, gaur, 18:00etan, Mendaron jokatu den txapelketan

**E. Maiz** Baliarrain

Gaur, hilak 26, osteguna, Mendaroko Goiñati pilotalekuan Gipuzkoako Lokotx Biltze Txapelketa jokatu da. Azken urteetan be-

zala, parte hartzaileen artean izango da Eneko Garmendia baliarraindarra.

1,25 metroko ditantziatik, gutxira 50 lokotx bildu beharko dituzte. Eneko Garmendiaz gain, Arkaitz Astiazaran, Jon Goikoe-txea, Jon Larrañaga, Igor Rey eta Gotzon Zulaika ariko dira nor baino nor lokotxak biltzen.

Azken lau urteetan lortutako txapelari eusten saiatuko da baliarraindarra.

oalegiadea@hitza.info



1970. urtean, San Inazio auzoan sokatira lehia egin zuten. MAKU SARASOLA

## San Inazio auzoko jaiak, Ibarra

Larunbatean egun osoko festa izango dute auzotarrek; asteartean meza eta pintxoak izango dituzte

**Eneritz Maiz** Ibarra

Ibarra San Inazio auzoan jaiak ospatuko dituzte. Egundia larunbata, hilak 28, izango da, baina San Ignazio eguna ere ospatuko dute. Larunbaterako egun osoko festa prestatu dute. Goiza txikientzat izango da, eta arratsaldean, herri kirol saioa izango da. Afaria egingo dute ondoren, eta norberak eraman beharko du bere afaria. Parranda egin nahi duenak aukera izango du Dj Imanolen erritmora egiteko. San Ignazio egunean meza eta pintxoak izango dituzte, festen amaiera emateko.

↓ **Egitaraua**

**UZTAILAK 28, LARUNBATA**

- **10:00.** Jaien hasiera.
- **11:00.** Haur festa: jokoak, tailerrak,...
- **18:00.** Patata tortilla lehiaketa.
- **19:00.** Herri kirolak: sokatira, txingak eta loskotxak izango dira Ibarra sokatira taldearen eskutik.
- **21:00.** Herri afaria egingo dute. jatekoa norberak eraman beharko du.
- **Ondoren.** Musika izango da Dj Andoniren eskutik.

**UZTAILAK 31, ASTEARTEA**

- **09:00.** Meza.
- **Ondoren.** Pintxoak izango dira, eta festen amaiera traka egingo dute.

## Chamonix eta Zermatt arteko marka saiakera egiten ari da Iker Karrera



Atzo 19:00etan hasi zen mendi lasterkaria Frantziatik Suitzarako bidea egiten; 115 kilometro egingo ditu

**E. Maiz** Amezketza

Iker Karrera amezketarrak erronka berria du. Frantziako Chamonixetik abiatu zen atzo 19:00etan, eta Suitzako Zermatt mendira arteko 115 kilometroak egingo ditu korrika. Mendi lasterkariak Alpeetako bi mendi esanguratsuenak lotuko ditu: Mont Blanc eta Zerbino.

Aurreko astea bertan pasa du entrenamendu saioak egiten. Hiru etapatan egin du ibilbidea, eta azken zatia izango du zailena. 18 ordu eta 50 minutuko errekorra hautsi nahi du. Hamabi glaziar gurutzatuko ditu, eta oso altura handian ibiliko da. Goi mendian egingo du korri eta 9.000 metroko desnibela izango du, «konpromiso eta maila handiko» erronkari aurre egingo dio. «Gorria izango da, baina inoiz egin dudan gauzarik politena izango da», adierazi du.

**Irudia** > Ikaztegieta / Altzo



## ORDIZIAKO 89. KLASIKOA ESKUALDETIK PASA DA

Gorka Izagirre ormaiztegiarrak irabazi du Ordiziako 89. Klasikoa. Ordiziako klasikoak bots itzuli egiten ditu Tolosaldean, eta bost aldiz igo behar izan zuten Larraitze-ko gaina. Horietatik bi itzulitan Altzo ere igo behar izan zuten. Hasierako kilometroetan ihes egin zuten Dmitry

Sokolov errusiarrak. Hiru itzuli ihes eginda egin osten, harrapatu zuen tropelak. Azken itzulian Gorka Izagirrek eta Johan Chavezek ihes egitea lortu zuten, eta seiko talde bat izan zuten atzetik. Zaldibiatik Ordiziarako bidean harrapatu zituen taldeak eta azken metroetan

Izagirre gailendu zen, esprintean. Euskaltel-Euskadik lasterketan egindako lana azpimarratu zuen Izagirrek, taldekideei eskerrak emanez. 4:03:17 behar izan zituen 165,7 kilometroak egiteko. Bigarren, Johan Chavez eta hirugarren Miguel Angel Rubiano sailkatu ziren. E.MAIZ



Santio egunean haur eta gaztetxoak zezentxoekin jolasteko aukera izan zuten. A. IMAZ

## «Oso gustura» dago udala tupper kanpainarekin

Duela sei hilabete jarri zuten kanpainaren inguruko balantzea egin du Amasa-Villabonako Udalak

**A. Imaz** Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak eta Kutxa Ekoguneak, herriko arrandegien eta harategien laguntzarekin, tupper ontziak erabiltzeko kanpaina jarri zuten martxan duela sei hilabete, herrian hondakinak murrizteko xedez. Kanpainak iraun duen bitartean, arrandegietan eta harategietan tupper-erabili duen bezero bakoitzak 20 euroko bonoa irabazteko aukera izan du, hileroko egindako zozketen esker.

Harategiek eta arrandegiek aktiboki hartu dute parte ekimenean, izan ere, denda bakoitzak hileroko zozketa bana egin du tupper-erabili duten bezeroen artean. Parte hartu duten arrandegi eta

harategiak honakoak dira: Brontxillo, Benito Aldalur, Musturina eta Iguaran harategiak, eta Mutio, Garayar, Miguel Ruiz Amiano eta Itxaskide arrandegiak.

Kanpainak hasieran arrakasta gutxi izan zuela dio udala, nahiz eta denborarekin, «gero eta herritar gehiago joan tupper-arekin erosketak egitera. Askok jada sistema hau erabiltzen dute eguneroko erosketetan». Udalarentzat «oso pozgarria da tupper ontzien erabilera herritarren artean finkatu izana, horrek erakusten baitu kanpainak bere emaitzak bildu dituela».

Erabiltzaile guztiak zoriondu nahi ditu udalak, «bakoitzaren ekintza txikia den arren, orokorrean, herrian hondakin gutxiago sortzea dakarrelako». Tupper ontziak oraindik erabiltzen ez dituztenei, kanpaina bukatu den arren, arrandegietan zein harategietan erosketak egitean plastikozko kaxa horiek erabiltzera gonbidatu ditu udalak.



Tupper ontzien erabilera bultzatzeko kanpainaren aurkezpena. HITZA

Uda honetan **zatoz** **HITZA**ren itzalera

Egin harpidedun Ekainaren 4tik Uztailaren 27ra eta jaso eguzkitako hau oparri!

Harpidetuaren artean Oribelaketa Surf Harpidetza surf taula jostaldirako dugu.

Harpidetza: **902-82 02 01** harpidetza@hitza.info

**hitza**

## Santio egunak Santa Anari eman dio lekukoa, jubilatuen bazkari eta guzti

Txirringulari lasterketa 17:00etan hasiko da; irteera eta helmuga Eroski parean izango dira

**Asier Imaz** Amasa-Villabona

Herriko dultzaineroek iragarri zuten Santio eguna Villabonako jaietan, atzo, herrian zehar Diana joaz. Haur eta gaztetxoak jadanik argi zeuden, bai baitzekiten Gorritiren animaliekin jolasteko aukera izango zutela kiroldegia ondoan. Gurasoak hesiare kanpo aldean kokatzen ziren bitartean, korrikalari ausartak zelaira jaitzi ziren; poneyak eta zezentxoak zain zituzten.

Egurdian, Mariachi Azabache taldeak emanaldia eskaini zuen Txistulari plazan, arratsaldeko patata tortilla txapelketaren aurretik. Haurrek euren jaiarekin 18:00etan jarraitu zuten, lehen egunean bezala, buruhandi eta erraldoiak irten baitziren kalera. Oinkari dantza taldekoek, aldiz, soka dantza egin zuten Malkar plazan. Egunari musikarekin eman zioten amaiera, lehenik Eresargi abesbatzakoekin, eta ondoren, Blaka eta Gatiburekin.

### Santa Ana eguna

Santio atzean utzi eta Santa Ana joango da gaur. Erretiratuek bazkaria egingo dute Txermingo ikastolan. Musean jokatu ondoren, txirringulari lasterketa ikusteko aukera izango dute. Animatzen denak gauean disko festan dantza egiteko aukera edukiko du, Oihan Vegaren erritmoan.

### ↓ Egitaraua

#### UZTAILAK 26, GAUR

- **09:00.** Diana, Hernaniko dultzaineroekin.
- **11:00.** Salbadore erretiratuen taldeak eta Santiago egoitzako aitona-amonek egindako eskulanen eta margoen erakusketa, Berdura plazan.
- **11:00.** Birziklatze fabrika ikuskizuna, haurrentzat, Arroako plazan.
- **14:00.** Erretiratuen bazkaria, Txermingo ikastolaren azpian. Ondoren, dantzaldia Astiasaran anaiek eta Leirek alaituta.
- **16:00.** Mus Txapelketa, Bai Euskal Herriari taldearen eskutik, Berdura plazan.

- **17:00.** Txirringularien herri lasterketa, Irrintzi elkartearen eskutik. Irteera eta helmuga Eroski parean izango dira.
- **17:00.** Ginkana nerabeentzat, Malkar plazan.
- **18:00.** Euskaraokoa, haurrentzat, Arroako plazan.
- **18:30.** Errebotea, Behar Zana taldeen artean, Behar Zana KÈren eskutik.
- **20:30.** Disko festa, Errebote plazan, Oihan Vega ariko da DJ lanetan.
- **22:00.** Oinkari dantza eskolaren emanaldia, Olaederra kiroldegian.
- **00:00.** Disko festa, Errebote plazan, Oihan Vegarekin.



Osteguna 26. Villabonako

**IRU ALDETA** tabernan 23:00etatik aurrera

**SOUND SYSTEM GAUA**

Joanne Highland  
Monsieur Le Crepe  
Xabi Solano  
DZ



Haur sahararrak Ibarako Azkue auzoan kokaturiko aterpetxean, atzo. I. TERRADILLOS

Maiatzak 20 elkarteak bultzatuta, sei haur saharar ari dira uda igarotzen Ibarako aterpetxean; errefuxiatuen kanpalekuetatik, bi hilabeterako, ahalik eta haur gehien ateratzea du helburu ekimenak.

## Haur gehiago etortzea xede

**Iñigo Terradillos** Ibarra

**E**gonaldiaren erdia egin dute jada. Hainbeste jolas, ekitaldi, irteera eta igerileku edota hondartzetako bainurekin konturatzera-ko lau aste igaro dituzte haur sahararrek gurean. Harrera familiarren gehienek, baina bada beste aukera bat, aterpetxearena. Ibarako Udalak utzitako etxebizitzaren ari dira euren egonaldia burutzen sei gaztetxo begiraleekin batera.

Maiatzak 20 elkarteak bultzatuta egin ahal izan da aterpetxea gaztetxo hauek uda Ibaran igarotzeko. Hirugarren urtea da proiektua gauzatzen dutela, aurreko bi urteetan, Brinkolan jarri baitzuten, Legazpiko Udalak utzitako etxea baliatuta. Beraiek hasi aurretik, ordea, Lasturren bazuten martxan ekimena. «Duela lau urte Nubi eta Lesbaa elkarteek bultzatuta, Lasturren haur sahararrentzat aterpetxea zabaldu zuten; kasu honetan, gerrako zaurituentzako zentroan familiako kideren bat zuten haurrek ziren aterpetxera etorritakoak», azaldu du Eli Eizagirre Maiatzak 20 elkartearen kideak.

2008ko udan Eli Eizagirre lea-buruarra hainbat lagun euskaldunekin eta sahararrekin Lasturreko aterpetxean izan zen begirale moduan laguntzen. «Ideia asko gustatu zitzaizgun, eta gisa bereko beste aterpetxe bat sortu

genezakeela pentsatu genuen». Bada, Maiatzak 20 elkarteak sortu, eta lehen bi urteetan Brinkolan egin ahal izan dute ekimena. «Gure helburua uda igarotzera Euskal Herrira etortzen diren haur sahararren kopurua handitzea zen, haur gehiagori eman nahi genion kanpalekutik atera eta gurera etortzeko aukera», dio Eizagirrek.

Hala, urte bakoitzean 15 haur inguru izan dituzte Brinkolako aterpetxean. Aurten, berriz, bost haur soilik izango zituztenez, Brinkolako etxea handiegia zelakoan, beste zerbaiten bila hasi ziren. «Ibarako Udalak Sahararen aldeko elkartearekin duen erlazio ona ikusita laguntza eskatu

genien, eta Azkue auzoan duen etxebizitza bat jarri zuen gure eskura».

Maiatzak 20 elkarteak Gipuzkoara bideratutako aterpetxea sortu du, eta aurten Bizkaian

### Hiru begirale boluntariok zaintzen dituzte aterpetxean dauden sei haurrek

gauza bera egin dute. Haur sahararrek uda Euskal Herriko harrera familiarren igarotzea bultzatzen duen Oporrak Bakean ekimenaren helburu bera dute. Haur hauen osasuna eta elikadura zaintzea, mediku azterketak egi-

nez, eta elikadura egokia emanez, desertuan udan izaten den tenperatura jasangaitza ekiditea, eta uda polita igarotzea, errefuxiatuen kanpalekuetan egin ezin ditzairetako jarduerak burutzen.

### Lan boluntarioa

Hiru begirale arduratzen dira aterpetxean dauden harren zaintza eta jarduerak antolatzeaz. Asteburuetan, berriz, laugarren baten laguntza ere izaten dute. Ez dute diru laguntzarik jasotzen, eta guztiek era boluntarioan egin dute lan. «Ibarako Udalak utzi digun etxea dugu, eta baita inguruko dendek ematen diguten laguntza, esaterako, Eroskin josturak ematen dizkigute eta Opi-

okindegian ogia, eguneroko» dio Maiatzak 20 elkartearen kideak. Horiez gain, arropa edo eskolako materiala ere jasotzen dute, hainbat denda eta norbanakoren elkartasunari esker. «Guztien babela eskertu beharra dago, beste la ezinezkoa izango bailitzateke haurrei behar bezalako zerbitzua ematea».

Eli Eizagirrerri eta Maiatzak 20 elkarteari uda honetakoa azken aterpetxea izatea gustatuko litzateke. «Haur hauek ez lukete hona etortzen ibili beharrik izango, euren lurretako hondartzetan egon beharko luketelako; beraz, Marokori Mendebaldeko Sahara bakean uzteko eskatzen diogu, 37 urte igaro baitira jada».

## Agur festa abuztuaren 17an ospatuko da, Tolosan

**I. Terradillos** Leizta

Gure artean uda polita igaro eta gero, abuztuaren amaiera aldera itzuliko dira haur sahararrak euren bizileku diren Algerian kokaturiko errefuxiatuen kanpalekuetara. Eskualdea utzi aurretik, urtero legez, Tolosaldea Sahararekin elkarteak agur festa antolatu du gaztetxoentzat eta harrera familiarrentzat. Festa abuztuaren 17an izango da, arratsaldean hasi eta gauera bitarte, Tolosako Zerkasian.

Lehendabizi, 17:00ak aldera, haurrentzat jolasak egongo dira. 19:00etan ekitaldi politikoa egingo dute, eta ondoren kalejira izango da dultzaineroekin. 21:00etan herri afaria izango da, gaztetxoentzat, harrera familiarrentzat eta parte hartu nahi duen ororentzat, eta afariaren ostean, musika izango da protagonista, Hare-haizea taldearen eskutik.

Tolosaldea Sahararekin elkarteak eskualdeko herritar guztiak gonbidatu ditu agur festan parte hartzera.

Sahararen aldeko elkarteak gonrotatzen duenez, 24 haur daude aurten eskualdean, uda igarotzen. «Guztiak erbestean jaio eta hazi dira. Beraien jatorrizko herrialdeak, Mendebaldeko Sahara, hainbat eta hainbat kilometroko kostaldea duen arren, haur hauek itsasoa lehen aldiz Euskal Herrian ikusi dute beraien herrialdea azken 37 urtetan Marokoko erregimenaren indar okupatzaileen menpean dagoelako», adierazi dute. Okupazio honek ezinezko egiten duela haur hauek

justiziazko eta askatasuneko gizarate batean hazi eta heztea diote; «atzerriko basamortu batean, eta bizi baldintzarik zailenetan bizirautea behar izan daude».

Tolosaldea Sahararekin elkarteak diotenez, «ohorea izan da herri oso baten askatasunaren aldeko borondatearen enbaxadoreak diren haur sahararrak, irribarrea ahoan dutela, gure herri eta auzoetako plazetan eta parkeetan edo igerilekuan olgetan ikusteak. Jaso-takoa emandakoa bezain edo are aberasgarriagoa izan da».

## Indoor Bizikleta Topaketa egingo dute estreinakoz, etzi, Leitzan

Kirola egiteko herritarrak elkartzea eta sahararrei elkartasuna adieraztea dira ekimenaren helburuak

**I. Terradillos** Leitza

Leitzako Saharar Herriarekiko Elkartasun taldeak antolatuta, eta Leitza, Villabona eta Asteasu-ko kiroldegia eta Leitzako Udalak babestuta, Indoor Bizikleta Topaketa egingo dute Leitzan, lehen aldiz, etzi. Leitzako plazako karrapean izango da, 16:00etan hasita.

Antolatzaileek azaldutakoaren arabera, kirola eta elkartasuna uztartzen ditu ekimenak. Bate-tik, kirola egiteko helburuz jendea elkartzea du xede, eta bestetik, sahararrei elkartasuna adierazi eta urtean zehar sahararrekin zerikusia duten ekintzak antolatzeko dirua lortzea.

Dagoeneko 30 lagun baino gehiagok eman du izena estreinakoz egingo den ekimenen parte hartzeko, eta horregatik, antolatzailak «oso gustura» daude izan duen erantzunarekin.

Denera lau saio izango dira bizikleta gainean, eta saio bakoitzak 35 minutuko iraupena izango du. Ruben Kabbalero, Nerea Gartzia, Angel Serrano eta Buxy Kortajarena izango dira begiraleak. Parte hartzaileek aukeratu ahaliko dute saio bakarrean parte hartu, bitan, hirutan edo lautan. Hain justu, prezioa horren araberakoa izango da: saio bakarrean parte hartzeagatik, 10 euro ordaindu beharko da, bitan parte hartzeko 12 euro, hirutan 14 euro eta lautan, 16 euro.

Izena eman nahi duenak 649 552 368 (Jabier) zenbakira deitu beharko du.

● [leitzaldea@hitza.info](mailto:leitzaldea@hitza.info)

# Leitzaldean euskararen normalkuntzak aurrera egin arren, oraindik zuloak daude

Aurrera begirako ildoak zehazteko. Euskarari buruzko gogoeta estrategikoa egin dute Leitzan eta Areson

**Iñigo Terradillos**

Euskararen egoera ona da Leitzaldean, euskararen normalizazioan aurrera egin da, baina oraindik irabazteko espazioak geratzen dira, eta horregatik tinko jarraitu behar dute lanean herritar guztiek, ardurara herri osoarena baita. Hauek dira Leitzan eta Areson egin berri duten euskararen inguruko gogoeta estrategikoan nabarmendu dituzten ideiak.

Lehendabizi Leitzan eta ondoren Areson egin duten gogoeta honetan, euskararen normalizazioan egin den lana baloratu dute, eta aurrera begirako lanari oinarri bat eman diote. Bada, euskararen egungo egoera aztertu dute, eta lehen zenarekin alderatu. Hiru saio egin dituzte, bi Leitzan eta bakarra Areson, eta herritarrek nahiz eragileek galdetegi bat erantzun dute eta euskararen inguruan dituzten ideiak partekatu dituzte.

### Leitzan, badira zuloak

Leitzako saioetan eginiko gogoe-tan artean, bertako euskara normalizatzeko eta sustatzeko azken urteetan egin duten lana baikorki baloratzen dute herritarrek. Merkataritza munduan, aisialdian, kulturari, eskolan, udalean edota familiarari zuzenduriko ekimenak emankorrak izan direlarik. Aldiz, etorkinei zuzenduak, gazteen komunikatzeko era eta gurasoen arteko harremana lantzeko bultzaturikoak ez direla emankorrak izan uste dute herritarrek.



Euskararen egoera oso ona da Areson, egin duten gogoetaren arabera. I.T.

Era berean, euskararen aldeko lanean, diru laguntzetan murrizketak eta TDTren eraginez E'TB ikusteko izandako zailtasunak azpimarratu dituzte.

Bada, euskararen normalkuntzan aurrera egin dela ikusten dute herritarrek baina, era berean, euskarak oraindik badituela irabazteko espazio batzuk uste dute, gurasoak, etorkinak, Internet edota Leitzako Udalaren esku ez dagoen administrazioa, kasu.

Bestalde, Leitzan geroz eta gehiago egiten dela euskaraz ondorioztatu dute, eta gaztelaniaz hitz egiten dutenek euskara ikasten ez saiatzeagatik, nafar administrazioaren jarrera ezkorragatik, gaztelaniazko informazio iturrien bonbardaketarengatik edo euskararekiko harrotasun falta dutelako egiten dutela nabarmendu dute gogoetan.

Beraz, Leitzarrek euskararekiko jarrera oso aldekoa dute, baina egin duten azterketaren arabera, helburua herriko espazio guztietan normaltasun osoz erabiltzea izan behar duenez, tinko jarraitu behar da lanean, eta herritar guztiek dute zeresana honetan, «herri osoarena baita ardurara».

### Areson gehienak euskaraz

Areson egin dute euskarari buruzko gogoetan, balantze baikorra egin dute egungo egoeraz. Areson, beraz, euskararen egoera «oso ona» dela uste dute, eta azken urteotako bilakaera «onera-ko» izan dela.

Aresoko eguneroko bizitzaren espazio gehienak euskararenak dira. Baina, badira, nagusiki gaztelaniarenak direnak, pisu handia dutenak, gainera. Horien artean leudeke, Internet, telebista, egunkariak, softwarea eta esku-ko telefonoak.

Aresoko saioan parte hartu zuten herritarrek eta eragileek espazio jakin batzuetan ekintza zehatz batzuk proposatzeko ahalegina egin zen, horiekin plan xume bat osatzeko: udala, osasun zerbitzua, teknologia berriak, industria, hizkuntza eskubideak, hornitzaileak, Karrape irratia eta abizenen grafia arloak hautatu ziren, eta horietako bakoitzerako ekintza edo urrats zehatzen bat planteatu zuten. Erroka, beraz, hurrengo hilabete eta urtean horiek gauzatzea da, eta egoera oso ona bada ere, urratsak ematen jarraitzea.

## → Laburrak

### IV. Herrira Eguneko bazkariako txartelak

**LEITZA** › IV. Herrira Eguna egingo dute Leitzan, abuztuaren 10ean. 13:00etan plazatik manifestazioa egingo dute, eta 14:30ean elkartasun kantu bazkaria. Txartelak 25 euroan daude salgai, abuztuaren 9ra bitarte, Torrean.

### Belabieta kiroldegia itxita, hamabost egunez

**IBARRA** › Urteroko mantentze lanak eta aldageletan nahiz zurgelatan egin behar diren konponketak eta Herriko Festak direla eta, Ibarra Belabieta kiroldegia itxita egongo da hamabost egunez. Abuztuaren 16tik 31ra arte itziko ditu ateak, hain zuzen.

### Jaietako kuadrillen eguneko txartela salgai

**IBARRA** › San Bartolome jaietako kuadrillen eguneko txartelak eskuratzeko aukera izango da gaur, 19:00etatik 21:00etara, San Bartolome plazan, 24 euroan. Abuztuaren 2an eta 9an ere izango dira salgai.

### 'Basalagunak' filma emango dute, gaur

**IBARRA** › Basalagunak gazte-txoei zuzenduriko filma izango da ikusgai gaur, Ibarra plazan, 22:15etik aurrera. Eguraldi txarra egingez gero, aire librean izan ordez, Belabieta kiroldegian emango lukete.

### Otaño, igandean ariko da, urrezko aizkolarien ligan

**IBARRA** › Urrezko aizkolarien seigarren jardunaldia jokatuko dute igandean, hilaren 29an, Getxon, 17:30etik aurrera. Ibarrrako Unai Otaño Berako Donato Larretxearen aurka ariko da. Lehia interesgarria, biak goiko postuetan baitaude.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95



GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	26°
HOTZENA	18°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:** BERTAKO HEDABIDEAK



**Galtzaundi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**DEIALDIAK**

- **Tolosa.** Larunbateko Kantu Jirarako entsegua, gaur, 20:00etan, kultur etxean. Txistulari beteranok ere hartuko dute parte entseguan.
- **Tolosa.** Asis Sarearen hileko otoitzaldia, gaur, 19:30ean Klairisen komentuan.
- **Ibarra.** Jaietako kuadrillen eguneko bazkarirako txartela erosi daiteke, gaur, 19:00etatik 21:00etara, herriko plazan.

**ZINEMA**

- **Ibarra.** *Basalagunak* haurrentzako filma doan, gaur, 22:15ean plazan euria egiten ez badu, eta bestela kiroldegian.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen iritzien erantzukizunik.

# Aurten ere HITZAK Udako Argazki Lehiaketa antolatu du

Urriak 2 izango da argazkiak bidaltzeko azken eguna; sariak izango dira hiru argazki onenentzat

**Erredakzioa**

Urtero moduan TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK Udako Argazki Lehiaketa antolatu du. Hama-seigarren edizio honetan ere irudirik politenek edota deigarri-



Iazko Udako Argazki Lehiaketako irabazlea. NERE KARRERA

**Agurrak**



**Zorionak lizentziatuari!**

Taldeko gazteenaren maillota jantxi duzu nahiz eta 10 xentimorik jaso ez!

nek saria izango dute. Lehenengoak Elantxobeko Ogoño Mendi landetxean bi pertsonentzako bi gauko egonaldia irabaziko du, bigarrenak Tolosako Photokafaren eskutik, argazki-album analogikoa egiteko aukera, eta hirugarrenak Tolosako Orue erretegi, bi pertsonentzako otordua eskuratuko du.

Nabarmentzekoa da irakurle guztiak dutela udako oporraldietako argazkiak bidaltzeko aukera, baina bakoitzak argazki bakarra bidali ahal izango du. Irudiak [thargazkiak@hitza.info](mailto:thargazkiak@hitza.info) helbidera, edota posta arruntez Tolosako Araba etorbideko 5-atzea helbide-

ra bidali behar dira. Urriak 2 izango da irudiak bidaltzeko azken eguna. Argazkia bidaltzerakoan egilearen izen-abizenak, telefono zenbaki bat, eta argazkia non ateratu den azaldu beharko da, azalpen txiki baten bidez.

**Harpidedunen botoak**

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO epaimahaiak jasotako lan guztiak ikusi eta zortzi aukeratu ditu. HITZAN urriaren 5ean ikusi ahal izango dira finalistak. Horien artean gustukoena harpidedunek bakarrik aukeratu ahal izango dute, eta horretarako [thargazkiak@hitza.info](mailto:thargazkiak@hitza.info) helbidean harpi-

dedun kodea, eta gehien gustatu zaien irudiaren zenbakia eman beharko dute urriak 12 baino lehen. 943 65 56 95 telefonora deituta ere bozka eman ahal izango da. Ondoren, bozka eman duten harpidedun guztien artean, HITZAKO produktuen sorta bat zozketatuko da.

Argazki guztiak [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info) webgunean izango dira ikusgai, XVI. HITZA Argazki Lehiaketa atalean.

**↓ Baldintzak**

- Argazkiak 2012ko udako oporraldikoak izan behar dira, papelean, diapositiban eta formatu digitalean.
- Bidaltzeko aukerak: [thargazkiak@hitza.info](mailto:thargazkiak@hitza.info)-ra, edo posta arruntez TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO Tolosako egoitzara (Araba etorbidea, 5-behea, 20.400 Tolosa).
- Argazki digitalek, gutxienez, ezaugarri hauek izan behar dituzte: 20 zentimetroko zabalera eta 300eko bereizmena.
- Jari behar diren datuak: egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa, argazkia non eta noiz ateratu den, eta zer ikusten den.
- Jasotako argazkiak artxiboan gordeko ditugu, eta HITZAK behar ditunean argitaratuko ditu.

## harpidedun izateak badu saria

### zozketa

**1 Casa Julian**  
Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Santa Klara, 6 Tolosa  
Tel.: 943-67 14 17  
[www.casajuliandetolosa.com](http://www.casajuliandetolosa.com)

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

**2 Ostatu Hernialde jatetxea**  
Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Hernialde  
Tel.: 943-65 24 96

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

**3 Arbizu hestebeteak**  
Sorta bat

Arbizu  
Tel.: 948-46 06 28  
[www.embutidosarbizu.com](http://www.embutidosarbizu.com)  
[www.euskaltxokoplaza.com](http://www.euskaltxokoplaza.com)

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

**4 Eureka! zientzia museoa**  
Bi lagunentzako bina sarrera

Mikeletegi, 43-45  
Donostia  
Tel.: 943-012478  
[www.eurekamuseoa.es](http://www.eurekamuseoa.es)

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** (harpidedunen kodea, izena, herria, eta zerekin zentzutan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz) Aste honetako astelehen, asteartek eta ostegunetako, nahiz duzun orduan. Sarietarako zozketaren argitaratze data.

**TXOKOA hitza**